



Erosketa arduratsuaren kudeaketarantz hirugarren sektore sozialeko erakundeetan

Erosketa arduratsua da enpresa hornitzaileak hautatzeko prozesuetan, eta gizarte-erakunde eta -eragileek produktuak, zerbitzuak eta hornidurak erosterakoan gizarte- eta ingurumen-irizpideak txertatzea.

Kontsumo kontzientea

Produktu eta/edo zerbitzu jakin batzuk erosteko benetako beharra dagoen ala ez aztertzea.

Kontsumo arduratsua

Produktu bat nolako lan-, gizarte- eta ingurumen-baldintzetan ekoitzi eta merkaturatu den ezagutzea eta produktu horren kontsumoak dituen ondorioei buruzko informazioa jasotzea.

Kontsumo eraldatzailea

Eredu enpresarial eta ekonomiko alternatibo eta eraldatzaileak sustatzen dituzten enpresak, produktuak eta zerbitzuak aukeratzea.

Erosketa arduratsua honako hau sustatzeko

- Giza eskubideen defentsa eta bidezko lan-baldintzak.
- Merkataritza-harreman bidezkoagoak, inklusiboagoak, demokratikoagoak eta jasangarriagoak.
- Ekonomia sozial eta solidarioa, feministagoa eta ekologikoagoa, guztion onerako.
- Bizitzaren ingurumen- eta gizarte-jasangarritasunerako ekonomia.

HSSeko erakundeetan erosketa arduratsua egitea da:

- Eragin positiboa izateko potentzial handia duen politika.
- Erakundearen ideiekin eta misioarekin bat datorren jardunbidea.
- Eskubide sozialak garatzeko eta elkartasuna, justizia soziala eta jasangarritasuna sustatzeko jardunbide eraldatzailea.
- Erakundearen ingurumen-inpaktua murriztearen aldeko apustua

Ingurumen- eta gizarte-konpromiso handiagoa duten enpresak eta produktuak hautatzea.

Produktuen eta hornikuntza-katearen gizarte- eta ingurumen-ezaugarriak kontuan hartzea (ziurtagiriak eta etiketak).

Bidezko prezioak bultzatzea eta bidezko eta iraupen luzeko merkataritza-harremanak sustatzea.

Erosketa arduratsuaren gizarte-irizpideak:

1. Lan-baldintza onak.
2. Genero-ekitatea.
3. Inklusio soziala.
4. Tokiko garapena eta partaidetza komunitarioa sustatzea.
5. Bidezko merkataritza-praktikak sustatzea.
6. Finantza etikoen eta aseguru etikoen tresnak sustatzea.
7. Gardentasuna eta erantzukizuna hornidura-katean.

Erosketa arduratsuaren ingurumen-irizpideak:

1. Berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea.
2. Hondakinen kudeaketa egokia.
3. Natura-baliabideen kontserbazioa.
4. Ingurumen-inpaktua murrizten duten produktuak eta zerbitzuak sustatzea.